

2.

DOCUMENTO _CONVENIO: 01 Hitzarmena urtekoa 2022 -AUMATEGI	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: OKLR0-NGY7V-FDAXQ Página 1 de 4	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, de Ayuntamiento de Barrundia Firmado 01/04/2022 13:26	ESTADO FIRMADO 01/04/2022 13:26



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 20638 OKLR0-NGY7V-FDAXQ 2A31E86871627F510ADFBFB3408A1C61A01FE56) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalengeltza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1

Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)



BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)

AUMATEGI KIROL ELKARTEA ERAKUNDEAREN ETA BARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

BILDURIK

Alde batetik, Igor Medina Isasa, Barrundiako Udalaren Alkate-Udalburua izanik, beronen izenean eta ordeztu diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Aixona Saez de Ocariz Albizu andrea, Aumategi Kirol elkartearen lehendakaria izanik (G01578814), horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Alde biak hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

AURREKARIAK

LEHENA.- Aumategi elkarte soziokultura biziki sortu izan zen honako helburuak lortzeko Barrundiako udalerrira mailan:

- Udalerriko pertsonen ongi izatea bilatzea kirolaren bitartez.

- Udalerriko bizilagunen elkar ezagutzea eta ongi pasatzearen helburuarekin sakontzea (euskaraz).

- Udalerrira osatzen duten herrien gertutasuna lortzea.

BIGARRENA.- Toki Jaurpidearen Oinarriak Arauzkotezko Legearen 25.2.1). artikulua araberara, udalerrira, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

.....
1) Kirolaren eta kirol instalakuntzen sustatzea eta aisialdia betetzea.
.....

Halaber, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakunde berrak bere 17.1.19) artikulua araberara, aurreko Lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerrira, honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:

.....

19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.

.....

DOCUMENTO _CONVENIO: 01 Hiltzarmena urtekoa 2022 -AUMATEGI	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: OKLR0-NGY7V-FDAXQ Página 2 de 4	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, de Ayuntamiento de Barrundia.Firma de 01/04/2022 13:26	ESTADO FIRMADO 01/04/2022 13:26



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 20638 OKLR0-NGY7V-FDAXQ 2A31EB6671827F510ADFBB340A1C61A01FE56) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoliza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&em_id=12&idoma=1

Ayuntamiento de **BARRUNDIA**
(ÁLAVA)



BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)

HIRUGARRENA.- Ekainaren 11ko 14/1998 Legearen, Euskadiko kirolarena, 2. artikulua arabera, kirola interes publikoko gizarte-jardura da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizarte ondo izateko lagungarria.

Pertsona guztien funtsezko eskubidea da kirola askatasunez eta norbere borondatez egitea.

Aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian:

.....
b) Kirol-elkarteak bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea ere.

.....
d) Kirol-jardura gizarte-maila guztietara, batez ere ahulenetara, zabaltzeko programa bereziak onartzea eta burutzea.

.....
o) Kirol-jardueretan naturaz modu egokian baliatzea bultzatzea, ingurugiroaren babesarekin bateragarria izan dadin.

.....
s) Euskal kirolari laguntzea Estatutan nahiz atzerrian.

t) Euskal Herriko kirol-motak babestea eta sustatzea.

.....
LAUGARRENA.- Ekainaren 11ko 14/1998 Legearen, Euskadiko kirolarena, 11. artikulua arabera, aurreneko Lege horren ondorioetarako, kirol-klubak elkarte pribatuak izango dira, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikodunak. Pertsona fisiko edo juridikoek osatuko dute, kirol-mota bat edo gehiago sustatzea edo praktikatzea helburu dutenak, lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kontuan hartu gabe.

BOSGARRENA.- 1955eko ekainaren 17an onartutako Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23.1 artikulua arabera, Udala Korporazioek entitateei, erakundeei edota norbanakoei diru-laguntzak luzatu ahal izango dizkie betiere toki eskudantzei atxikitutako zerbitzuak edo jarduerak osatzen badituzte.

SEIGARRENA.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua erekin bat etorritik, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzten, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua emateko konpromisoa hartu aurretik.

ZAZPIGARRENA.- Barrundiako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza 11. artikulua arabera, aurreratutako ordainketak egin ahal izango dira, hau da, justifikazio egin baino lehenagokoak, dirulaguntzari atxikitako jarduerak gauzatu ahal izateko, finantzaketa gisa.

DOCUMENTO _CONVENIO: 01 Hitzarmena urtekoa 2022 -AUMATEGI	IDENTIFICADORES
OTROS DATOS Código para validación: OKLR0-NGY7V-FDAXQ Página 3 de 4	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, de Ayuntamiento de Barrundia.Firma50 01/04/2022 13:26
	ESTADO FIRMADO 01/04/2022 13:26



Este es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 20638 OKLR0-NGY7V-FDAXQ 2A31E86871627F510ADFBFB9408A1C61A01FE56) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnetegolizaraba.euzerporail/verificardocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=12&idomun=1

Ayuntamiento de **BARRUNDIA**
(ÁLAVA)



BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)

ZORTZIGARRENA.- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publiko eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoaren 3. artikulua arabera, aurrenean zehaztutako Legearen I. Tituluko II. Kapituluko xedapenak honako hauei ere aplikatuko zaizkie:

- Urtebetez 100.000 euro baino gehiagoko laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko sarreren %40 – 5.000 euroko minimoarekin-, gutxienez, laguntza edo dirulaguntza publikoetatik eskuratzen duten erakunde pribatuak.

BEDERATZIGARRENA.- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publiko eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoaren 5. artikulua arabera (Printzipio orokorrak), interes sozial edo kulturalako xedea besterik ez duten irabazi-asmorik gabeko entitateak badira eta 50.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua badute, entitate horri laguntza edo dirulaguntza publiko gehien ematen dizkion administrazio publikoak eskura jarritako bitarteko elektronikoen bidez bete ahal izango dira aurreneko lege horretan ezarritako betebeharrak (halaber, 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki erakundeei buruzkoaren 49. Artikuluak).

Horrela, alde bientzat onuragarri izanik kirola sustatzea eta kirol praktika, betiere norbanakoen osozko garapena eta formakuntza bultzatzen dutelarik, eta osasuna hobetu, bizitza kalitatea eta ongizatea gehitu eta gizarte funtzioa betetzen duten kulturaren oihartzun eta interes orokorreko bezala, alde biek zera hitzartzen dute Barrundiako Udaleko 2022ko Aurrekontu Orokorretan zehaztutako diru laguntza izenduna bideratzeko:

HITZARKINAK

LEHENEA.- Aumategi Kirol Elkarteak udalerrri mailan honako jarduera fisikoak bultzatu ditu:

- Spinning.
- Mantentze gimnasia.
- Pilates.
- Zumba.
- Yoga.
- Multifitness.

BIGARRENA.- Diru laguntza kitatzeko Aumategi Kirol Elkarteak bere jarduerak garatzean eduki dituen gastuen zuriketa egingo du, horretarako gastuen zehaztea eta ordainagiriak aurkeztuko ditu, halaber edukitako diru-sarrera guztiak.

HIRUGARRENA.- Barrundiako Udalak AUMATEGI KIROL ELKARTEA erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako

DOCUMENTO _CONVENIO: 01 Hitzarmena urtekoa 2022 -AUMATEGI	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: OKLR0-NGY7V-FDAXQ Página 4 de 4	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, de Ayuntamiento de Barrundia.Firma5o 01/04/2022 13:26	ESTADO FIRMADO 01/04/2022 13:26



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 20538 OKLR0-NGY7V-FDAXQ 2A31EB6671827F510ADFBB3408A1C61A01FE56) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalarengetiza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=12&tiloma=1

Ayuntamiento de **BARRUNDIA**
(ÁLAVA)



BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)

ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 17.000,00 eurotako diru laguntza zehaztu du (2022ko Aurrekontu Orokorretako 341.481.007 partida).

LAUGARRENA.- Aumategi Kirol Elkarteari hirugarren klausulan zehaztutako zenbatekotik %50ren aurrerakina bideratuko zaio momentuko gastuei aurre egiteko, honenbestez, 8.500,00 euroko zenbatekoa berehala luzatuko da.

BOSGARRENA.- Legeak xedatutako publizitate aktiboa Barrundiako Udalaren web orriaren bitartez gauzatu beharko da.

Aurrenekoa ikusita, alde biek adostasuna frogatuz, hitzarmen hau sinatzen dute, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.



AUMATEGI KIROL ELKARTEA
Aixona Saez de Okariz Albizu